

## Demokrazia indartzea 2030 Agendaren esparruan

Mundu modernoa abiadura bizian aldatzen eta garatzen ari da. Gainera, guztia global bihurtu denez eta gero eta lotuagoa dagoenez, gure gizartearen arazoak geroz eta konplexuagoak, lausoagoak, zehaztugabeagoak eta, kasu batzuetan, kontrajarriagoak bilakatzen ari dira. Funtsezkoa da arazo eta erronka horiei begirada holistiko eta bateratu batetik heltea, eta horretarako, administrazio publikoek gizartearen inplikazioa behar dute.

Hala ere, bizi garen garaiaren beste ezaugarri bat da herritarren politikarekiko eta administrazio publikoarekiko lotura ahultzea, baita komunitatearekiko lotura ere. Urruntze horrek herritarren politikarekiko eta erakundeekiko atsekabea areagotzen du, eta aldi berean, komunitate-sentimendua ahultzea dakar.

Horrek guztiak politika publikoak eta erakunde-ekintza pentsatzeko eta garatzeko moduak birformulatzeko beharra planteatzen digu. Egoera honen aurrean, ezinbestekoa da betidanik euskal gizarteari oso lotua egon den elementu bat indartzea edo berreskuratzea: auzolana edo ekintza komunitarioa. Herritarren eztabaida eta parte-hartzea giltzarri izango dira gure garapenerako eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Gure gizartea hobetzeko eta kultura demokratiko sendo eta kontsolidatua eraikitzeke oinarriak izango dira. Kultura hori lankidetzeta-gobernantzan oinarritu beharko da, lurralde-lehiakortasunaren faktore gisa ulertuta.

16. Garapen Jasangarrirako Helburuak, halaber, gobernuen, gizarte zibilaren eta komunitatearen arteko lankidetzaren beharra ezartzen du, gatazkei eta parte-hartze inklusiboa sustatzeko beharrari irtenbide iraunkorrak aurkitzeko. Horri gehitu behar diogu 2030 Agenda globalean 18. GJHa, hizkuntza- eta kultura-aniztasunari buruzkoa, txertatzearen aldeko apustua, horrek 2030 Agenda eta GJHekin lotutako ekarpenak lurralde bakoitzaren errealitatera egokitzen lagunduko baitigu.

Euskadiko herritarrok demokrazian irmoki sinesten dugu eta egunero indartzen jarraitu nahi dugu. Batetik, pertsona guztien giza eskubideak, duintasuna, askatasuna eta berdintasuna bermatzeko gai den sistema politiko bakarra delako. Bestetik, berezko dituen balioak (aniztasuna, tolerantzia, errespetua...) eta ordezkatzeko duen kultura (elkarrizketa, akordioak, besteak onartzea...) bizikidetzeta eraikitzaile baterako eta baita giza aurrerapenerako ere egokienak direlako.

Demokrazia gaur egun arrisku larrian dago Europan. Etengabeko erasoak jasaten ari da eta indar antidemokratikoen laguntza sozial sendoa lortzen ari dira. Arriskua ez da mugatzen mugimendu faxista, xenofobo edo arrazistetara soilik. Gizartea ulertzeko modu bakar bat inposatu nahi duten mentalitate politikerara ere hedatzen da. Jarrera totalitarioek eta autoritarioek gizartearen aniztasuna ukatzen dute eta ez dute desberdina onartzen; pertsonen eta herrien askatasunaren aurka egiten dute.

Korrante horien aurrean, Euskadin demokrazia eta zentzu komunitarioa indartzen, sakontzen eta hobetzen jarraitzeko konpromiso irmoa daukagu. Horregatik, konpromiso hartzen dugu gure sistema demokratikoa berritzeko eta etengabe hobetzeko, baita Euskadin kultura demokratikoa sustatzeko eta sendotzeko ere, etikaren, osotasunaren, lankidetzagobernantzaren eta berrikuntza sozialaren oinarrietatik lan eginez.

2024ko azaroaren 28a

